



H DBH2

2020/2021

Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Irakurmena

DBHko 2. maila



Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- ☒ D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

ONGI IBILI BIZIKLETAZ



**IRUÑEKO MUGIKORTASUNARI BURUZKO
UDAL ORDENANTZA,
2019KO ABUZTUAREN 2TIK
INDARREAN**



NOLA ZIRKULATU GURE HIRIAN:



Bizikletek **debekatuta dute** honako hauetan ibiltzea:

- espaloiak (14 urtetik beherakoak izan ezik, bakarrik edo adinez nagusi den pertsona batekin edo birekin).
- garraio publikorako erreserbaturiko erreiak.



Honako hauetan **zirkulatu dezakete**:

- galtzadak.
- seinaleztaturako bizikleta-bideak.
- bizitegi-kaleak.
- parkeak eta pasealekuak.
- ziklo-bidexkak
- ibai-parkea.
- galtzadan, ahal dela eskuineko erreia erdiko tarte erabili. Biko ilaratan zirkulatu daiteke.

ZUK IKUSTEA ETA BESTEEK ZU IKUSTEA: txirrindulari guztiek **derrigorrezkoa dute gauerako argi** egokiak eta txirrina edukitzea.

ARRETA-GALTZEAK: bizikletaz ibiltzean, **debeku da telefono mugikorra eta entzungailuak** erabiltzea.

KASKOA: hirian, **16 urtetik beherakoek ezinbestean jantzi behar dute kaskoa.**

OINEZKOEN PASABIDEAK: galtzada **oinez** gurutzatu behar da.

ZIKLISTEN PASABIDEAK: abiadura murriztu oinezkoenera egokitu arte eta egiaztatu ibilgailuen gidariak ikusi dituztela.

ALKOHOLA ETA DROGAK: **debeku da bizikletaz** zirkulatzea alkoholaren edo drogen eraginpean.

ANIMALIAK: **debekaturik** dago uhalez loturiko animaliekin batera ibiltzea.

KONTUZ ZIRKULATU ETA BESTEAK ERRESPETATU.

**EDOZEIN ARAZO IZANEZ GERO, DEITU
TELEFONORA**

092

1. Noiztik dago indarrean Iruñeko Mugikortasunari buruzko udal ordenantza?

- A. 2018ko abuztuaren 2tik.
- B. 2018ko azaroaren 2tik
- C. **2019ko abuztuaren 2tik.**
- D. 2019ko azaroaren 2tik.

1. galderaren analisisa

Testu tipoa	Etena, instrukzioa, liburuxka.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

2. Zein udaletzek egin du udal ordenantza hau?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	<i>"Iruñeko udaletxeak".</i>

2. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzioa, liburuxka.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

3. Espaloian bizikletaz ibiltzea baimenduta al dago?

- A. Ez, debekatuta dago guztiz.
- B. Bai, baina garraio publikorako erreiak zapaldu gabe.
- C. Bai, bi pertsona elkarrekin joanez gero.
- D. Bai, 14 urtetik beherakoa izanez gero.

3. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzioa, liburuxka.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

4. Bizikletaz ibiltzean, zer da derrigorrezkoa?

- A. Gauerako argi egokiak eta txirrina edukitzea.
- B. Telefono mugikorra eta entzungailuak erabiltzea.
- C. Galtzada txirrindulatik jaitsi gabe gurutzatzea.
- D. Uhalez loturiko animalia batekin ibiltzea.

4. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzioa, liburuxka.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

5. Bizikletaz ibiltzean, zer dago debekatuta?

- A. Telefono mugikorra eta entzungailuak motxilan eramatea.
- B. Galtzada txirrindulatik jaitsi gabe gurutzatzea.
- C. Oinezkoen abiaduran ibiltzea.
- D. Animalia batekin batera ibiltzea.

5. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzioa, liburuxka.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

6. Zein da testu honen helburua?

- A. Bizikletaz ibiltzea etxetik atera gabe.
- B. Bizikletan kaskoa janztea ezinbestekoa dela erakustea.
- C. Bizikletaz non ibili behar den erakustea.
- D. Bizikletaz modu egokian ibiltzen erakustea.

6. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, instrukzioa, liburuxka.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

SEME BAKARRA IZAN NAHI DUT

Sentimenduen nahas-mahasean harrapatuta

Neba-arreba baten jaiotzaren esperoan egon diren etxeetako neska-mutil askok egingo dute bat, ziur aski, istorio honekin. Paul protagonista bezala, sentimendu hauen nahas-mahasean harrapatuta sentituko ziren: beldurra, errefusa, haserrea, jelsia, abandonua, bakardadea, tristura, jakin-mina, urduritasuna... Emozio hauek guztiak modu garden eta bizian ekarri ditu frantsesetik euskarara Miren Agur Meabek, komiki moduan ilustratutako liburuan. Berarekin hitz egin dugu.



SEME BAKARRA IZAN NAHI DUT
Yann Coridian - Gabriel Gay
Itzultzaile: Miren Agur Meabe
ELKAR

Zer gertatzen zaio Paul izeneko zortzi urteko mutiko protagonistari?

Miren Agur Meabe: Paulek jakin berri du anaia edo arreba bat izango duela laster, eta galduta sentitzen da. Uste du aurrerantzean ez duela izango tokirik ez gurasoen bihotzean, ez etxean. Horregatik, aurkari baten moduan ikusiko du "bestea".

Zein sentimenduk harrapatu dute Paul horrela sentitzeko?

Sentimenduen nahas-mahasean harrapatuta dago: beldurra, errefusa, haserrea, jelsia, abandonua, bakardadea, tristura, jakin-mina urduritasuna... Une batzuetan, egoerak gainez egingo dio, sentimendu bixi-bixi horiek guztiak kudeatzea ez delako erraza, nahiz eta oso normalak izan. Azkenean, gai izango da haurtxoa onartzeko eta familia denen artean osatu behar dutela ulertzeko.

Paulen gurasoen ikuspegitik zer deritzozu egoerari?

Gurasoak pozik daude albistearekin baina ez zuten espero Paulen erreakzioa. Hasieran, ama tristatu egingo da Paul triste dagoelako; aita, bere aldetik, egoerari pisua kentzen saiatuko da, txantxen bitartez eta abar. Guraso biek, bakoitzak bere erara, mezu funtsezko bat emango diote etengabe semeari: beti maiteko dutela, lehen bezainbeste edo gehiago.

Zer iruditu zaizkizu egilearen idazkera eta marrazkilariaren estilo grafikoa?

Idazkera eroso, gardena eta bizia erabili du. Umorea eman dio istorioari, baina protagonistaren barne-gatazkaren seriotasuna baztertu gabe. Marrazkilariak komikiaren teknikara jo du: marra zuribeltzak eta irudi estilizatuak. Oso eraginkorra iruditu zait testuaren laburpen osagarriak egin dituelako, di-da batean harrapatzekoak.

Inoiz, txikitan, horrelako pentsamendurik izan al duzu? Horrelakorik gertatu al zaizu?

Ez, neu izan nintzelako bi neba-arrebatan txikiena. Hala ere, ama egin nintzenean, bai erabili nuen buruan nola adieraziko nion semeari, egunen batean, kontu hori, eta garbi neukan esaldi magikoa, Pauli aitak esaten dion bera: "Zu nire seme nagusia zara, eta aizu, hori ez dago aldatzerik. (...) Hori da aldaezina, eternala eta halabeharrezkoa, premiazkoa, garrantzitsua...".

ITSASO MARULANDA
Kazetaria



7. “Seme bakarra izan nahi dut”, zer liburu mota da?

- A. Ipuin ilustratua.
- B. Eleberria.
- C. Antzezlanak.
- D. **Komikia.**

7. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, kazetaritza, elkarrizketa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

8. Zein hizkuntzatatik itzuli du Miren Agur Meabek euskarara?

- A. Alemanetik.
- B. Ingelesetik.
- C. **Frantsesetik.**
- D. Gaztelaniatik.

8. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, kazetaritza, elkarrizketa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

9. Zergatik sentitzen da galduta protagonista (Paul)?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	Aurrekoetako <u>bat</u> .
2	<i>“Jakin berri duelako anai-arreba bat izanen duela laster eta uste duelako aurrerantzean ez duela izanen tokirik ez gurasoen bihotzean, ez etxean”.</i>

9. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, kazetaritza, elkarrizketa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>2</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

10. “Sentimenduen nahas-mahasean harrapatuta dago”. Zein da “nahas-mahas” hitzaren sinonimoa?

- A. **Zurrunbiloan.**
- B. Kolpean.
- C. Argitasunean.
- D. Sakontasunean.

10. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, kazetaritza, elkarrizketa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

11. Zer transmitituko diote gurasoek Pauli?

- A. **Beti maitatuko dutela, lehen bezainbeste edo gehiago.**
- B. Beti maitatuko dutela, baina lehen baino gutxiago.
- C. Beti maitatuko dutela, bere neba-arreba berria baino gehiago.
- D. Beti maitatuko dutela, baina bere neba-arreba berria baino gutxiago.

11. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, kazetaritza, elkarrizketa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

12. Miren Agur Meaberi gertatu al zitzaion Pauli gertatutakoa?

- A. Bai, neba-arrebatan txikiena izan zelako.
- B. Ez, neba-arrebatan txikiena izan zelako.
- C. Ez, neba-arrebarik ez duelako.
- D. Ez du gogoratzen.

12. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Etena, kazetaritza, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

13. Nork egin dio elkarrizketa Miren Agur Meaberi?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	“ <i>Itsaso Marulandak</i> ”, “ <i>Itsaso Marulanda kazetaria</i> ”.

13. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Etena, kazetaritza, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

14. Testu hau non irakur daiteke?

- A. Institutuko webgunean.
- B. Kirol aldizkari batean.
- C. Institutuko atean.
- D. Kazeta batean.

14. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Etena, kazetaritza, elkarrizketa.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

Agertzen ez den herria

Zergatik, zergatik, zergatiik? Zergatik etorri behar izan dugu?

Autoaren atzeko partean jesarrita idazten ari naiz, idazten ez badut lehertu egingo naizelako. Bizi izan ditudan hamalau urteotan ez zait suertatu horrelakorik! Zorte txarra nirea, benetan! Eta hau egun madarikatua!

Goizeko lehenengo orduan irten gara hiritik (Buaaa!), eta egun guztia autoan eman eta gero, hemen gaude, Akabun (AKABU... A ze nolako izena! Perfektua da herria deskribatzeko, harago ezer ez dagoelako, mendiak, pinudiak eta ahuntzak kenduta).

Zirimiria izan da arratsaldeko azken orduan, mendietara heldu garenean. GPSak ez du jakin non demontre dagoen lekua, zin egiten dut. Mutu geratu da errepidean gora egiten hasi eta batera; handik aurrera, txintik ere ez. Arreta handiz gidatu behar izan du amak errepideko bihurgune guztiak egiteko, Idazle Madarikatuak GPSaren pantailara begiratu bitartean. Hamar aldiz baino gehiagotan galdetu dio Idazleak amari:

– *Laztana* (Puaj!), ziur al zaude sartu duzula helbidea traste honen memorian?

Eta amak, hamar aldiz baino gehiagotan, baietz, ziur dagoela erantzun dio.

Mila edo bi mila buelta ematen dituen errepide estu batetik abiatu gara mendian gora. Behe-lainoa gure gainera jaitsi da menditik. Lehiatilaz bestaldean, dena da berde iluna, marroia, bustia...

– Ikusi al duzue hori? -xuxurlatu diet Saioari eta Mikeli.

Haiek, berriz, ez didate erantzun. Saioak, nire ahizpa gazteak, MP4ko abestiei baino ez die arretarik eskaini bidaia osoan. Zazpi urte bete zituenean oparitu zioten MP4a, duela bi aste. Egun hartatik hona ez ditu kasko arrosak belarrietatik kendu! Saioaren ondoan, Mikel dago. Mikel ez da nire neba: Idazle Madarikatuaren semea - amaren nobioaren semea- da. Bada, Mikel seko dago lo, bere pelutxezko panpina beso artean daukala. Mendietara berriro begiratu, eta hauxe pentsatu dut: ni ote naiz hau tragedia itzela dela pentsatzen duen bakarra?

Kaka zaharra! Lehiatilatik begiratzean, nire *bracketak* islatu dira kristalean. Aaaaj! Ahoa itxi dut islada ikusi bezain laster. Etxean daukadan egoera gutxi ez eta -

gurasoak dibortziatu berri, amaren nobioa, Akabura etortzea...-, ahokoa ere badaukat: haginak kanpora neuzkalako ipini zidaten euskarria duela lau hilabete. Laster itzuliko naiz dentistarenera ea kentzen didaten, baina oraingoz, jasan egin behar dut. Euskarria haginetan eramatea ala Akaburako bidean egotea, bietatik txarrena zein den ez dakidala pentsatu dut.

Ez dago esan beharrik ez nuela hona, herri galdu honetara, etorri nahi. Gauza piloa utzi dut hirian: ezagutzen dudan bizimodua, ezagunak, insitutuko lagunak... Hori guztia gero eta urrunago geratzen ari da automobilak errepidean aurrera egin ahala. Eta beldur naiz. Zer-nolako jendea biziko da horrelako leku heze eta ilun batean?, pentsatu dut. Zelan moldatuko naiz? Dauzkadan arazo guztiak aztertu ditut banan-banan:

A) Nik nahi ez dudan arren, amaren nobioa gurekin biziko da. Luisma du izena, baina nik Idazlea esaten diot. Eta, batzuetan, oso haserre banago, Idazle Madarikatua (OHARRA: Ama, enteratzen bada, asko haserretuko da; beraz, hobe dut koadernoan ondo ezkutatu).

B) Etorri berria naizenez, herrian ez dut lagunik izango; horrez gain, institutua ez zait gustatuko (ziur nago), eta ez naiz ikasgai bat ere gaingitzeko gai izango.

C) A puntuaz enteratzen bada, eta horren ondoren, B puntua betetzen badut, ama zeharo haserretuko da nirekin. Eta haserre dago jadanik, hona etorriko ginela erabaki zuenetik oso txarto portatu naizelako (ez naiz batere atsegina izan, zin egiten dizuet!).

Ezpainak estutu ditut, eta lehiatilaz bestaldera begiratu dut. Adi geratu naiz herria noiz agertuko zain... Baina ez da agertu. Luzaroan jarraitu dugu, gora eta gora. “Non demontre dago herria? Non demontre dago herria?” galdetu diot neure buruari behin eta berriz. Eta gero, ozenki, amari ere bai:

– Non dago herria, ama?

Amak gidatzen jarraitu du. Idazle Madarikatuak buelta eman du niri begiratzeko. Sorbaldak jaso ditu:

– Ez dakigu, Aintzane, polita!

Polita?

– Horrek zer esan nahi du, galduta gaudela? –galdetu dut, ironiaz, eta itxaropen–puntu batekin: Akabu topatzen ez badugu, beharbada, buelta ematea eta hirira itzultzea erabakiko dute.

Luismak hasperen egin du. Amak begirakada arin bat bota dit ispilutik: “*Aintzane, ez hasi berriro*” adierazten duen horietako bat, azken egunotan sarritan bota didan horietakoa. Begirada hori ikusita, ahoa ixtea erabaki dut.

– Ez, Aintzane, ez gaude galduta... –urduri dagoela nabaritu diot amari ahotsaren doinuan–. Herria han nonbait dago... gorago.

Gorago. Jakina. Uf.

Minutu amaiezin batzuen buruan, topatu dugu lekua. AKABU, irakurri dugu errepide ondoko kartel batean; eta jarraian, letra handiz:

“KONTUZ GUNE BEREZIETAN.

ZAINDU NON JARTZEN DITUZUEN OINAK!!!”

Aintzaneren koadernoan

Laida Martínez Navarro

Giltza

15. Zein da kapitulu honen izenburua?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	“Agertzen ez den herria”.

15. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasartea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Irekia

16. Liburu honetako narratzailea protagonista bera da. Nola dakigu?

- A. 1. pertsona singularrean idazten duelako.
- B. 1. pertsona pluralean idazten duelako.
- C. 2. pertsona singularrean idazten duelako.
- D. 3. pertsona singularrean idazten duelako.

16. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasartea.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

17. Lotu pertsonaiak eta ezaugarriak.

Aintzane, pelutxezko panpina, Saioa, Mikel, GPSa, MP4-a, bracketak, Idazle madarikatua

Pertsonaiak		Ezaugarriak
Saioa	→	MP4a
Mikel	→	Pelutxezko panpina
Idazle madarikatua	→	GPSa
Aintzane	→	Bracketak

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	Hiru erantzun zuzen.
2	Lau erantzun zuzen.

17. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasartea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

18. Zer utzi du Aintzane hirian?

- A. Telefonoa, liburuak eta bere bizitza.
- B. Lagunak eta txakurra.
- C. Bere bizitza eta lagunak.
- D. Ezagunak eta MP4-a.

18. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasartea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

19. “Eta haserre dago jadanik, hona etorriko ginela erabaki zuenetik oso txarto portatu naizelako”. Zein da “txarto” hitzaren sinonimoa?

- A. Ongi.
- B. Gaizki.
- C. Erdipurdi.
- D. Egoki.

19. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasarte.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

20. Pasartearen bukaeran, ama urduri dagoela esaten du Aintzanek. Zer dela eta?

- A. Luismak GPSa gaizki jarri duelako.
- B. Saioa negarrez ari delako.
- C. Gasolinarik gabe geratu direlako.
- D. Helmugara iristen ez direlako.

20. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasarte.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

21. Akabura iristean aurkitu duten kartelak zer dio? Kopia ezazu.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	“Kontuz gune berezietan. Zaindu non jartzen dituzuen oinak!!!”.

21. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasartea.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

22. Kotxean zertan ari da Aintzane?

- A. Ahizparekin haserretzen ari da.
- B. Paisaia begiratzen ari da.
- C. Irakurtzen ari da.
- D. Koadernoan idazten ari da.

22. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasartea.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

23. Zer alde dago bi “polita” horien artean?

-Ez dakigu, Aintzane, polita!
Polita?

.....
.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	“Lehenengoa Idazle madarikatuak edo Luismak esaten du eta, bigarrena Aintzanek bere buruari esaten dio gogaituta, modu ironikoan, minduta, haserre... edo antzeko erantzuna”.

23. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, eleberria, pasartea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

OLIGRAFO BAT NOLA SORTU

Oligrafoa hartu

eta paperean

arkatz bat marraztu,

arkatz hori hartu

eta paperean

borragoma marraztu,

borragoma hori hartu

eta paperean

lehen letra borratu.

Has zaitezke idazten.

Iñigo Astiz, Joemak eta Polasak, Elkar.

24. Zenbat ahapaldi ditu bertsoak?

- A. 1
- B. 2
- C. 3
- D. 4

24. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

25. Zenbat bertso-lerro dituzte ahapaldi gehienek?

- A. 1
- B. 2
- C. 3
- D. 4

25. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

26. Zein da lehenengo 3 ahapaldietan errepikatzen den bertso-lerroa?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	“ <i>Eta paperean</i> ”.

26. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

27. Bukaeran izan ezik, zer egiten du igorleak?

- A. Gomendioak eman.
- B. Harridura adierazi.
- C. Jarraibideak eman.
- D. Galderak egin.

27. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

28. Zertarako idatzi du igorleak poema hau?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	<i>“Oligrafo bat sor dezagun”.</i>

28. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

29. Zenbat objektu ageri dira testuan?

- A. Bat ere ez.
- B. Hiru.
- C. Lau.
- D. Bost.

29. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

30. Zein da “borratu” aditzaren sinonimoa?

- A. Borra egin.
- B. Zuritu.
- C. Adarka egin.
- D. Ezabatu.

30. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, olerkia.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia